

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

(Maren, Damaris, Naiara)

Txakurrentzako Haurtzaindegia eta Egoitza

Gure proiektua txakurrentzako haurtzaindegia eta egoitza bat sortzea da. Leku honetan txakurrak ondo zainduta egongo dira, jabeek lan egiten dutenean edo bidaiatzen dutenean. Ideia hau sortu da gaur egun jende askok txakurrak dituelako, baina ez duelako denbora nahikorik haiek zaintzeko.

Gaur egun, txakur ordu asko pasatzen dituzte etxean bakarrik. Horrek estresa, asperdura, antsietatea eta portaera-arazoak sor ditzake. Gainera, jabe batzuk ez dira lasai sentitzen txakurra egoitza arrunt batean uztean, ez dakitelako nola zaintzen duten. Gure proiektuak arazo horiei irtenbidea eman nahi die.

Gure haurtzaindegian ez ditugu txakurrak zaintzen bakarrik, baizik eta haien ongizatea ere zaintzen dugu. Txakurrek jolastu egiten dute, ariketa fisikoa egiten dute, beste txakurrekin harremanak izaten dituzte eta burua lantzeko jarduerak egiten dituzte. Gainera, oinarritzko heziketa eskaintzen dugu, txakurren portaera hobetzeko.

Gure enpresa besteengandik desberdintzen duena gardentasuna da. Jabeek beren txakurrak kamera bidez zuzenean ikus ditzakete, eta argazki eta bideoak jasotzen dituzte jakiteko nola dauden. Horrez gain, janari naturalak eskaintzen ditugu, atsedeen hartzeko gune lasaiak ditugu eta txakur bakoitzari bere izaeraren arabera arreta ematen diogu.

Gure bezeroak lan asko egiten duten pertsonak, bidaiatzen duten familiak eta beren txakurraren ongizatea zaintzen duten jabeak dira. Pertsona hauek prest daude zerbitzu on batengatik ordaintzeko, badakitelako beren txakurra leku seguru batean egongo dela.

Proiektua ondo funtziona dezan, instalazio egokiak, txakurrak zaintzen dakien langileak, albaitarien laguntza eta material onak behar ditugu.

Amaitzeko, gure txakurrentzako haurtzaindegia eta egoitza ez da txakurrak uzteko leku bat bakarrik. Txakurren osasuna, heziketa eta zoriontasuna zaintzen dituen espazioa da, eta jabeentzat lasaitasuna eskaintzen du.